



Goizez eta arratsaldez (astearte, asteazken eta ostegunetan) jasoko ditu herritarrek

Iguneak, Beasaingo Udaleko Herritarrentzako informazio eta arreta zerbitzuak, bere ohiko ordutegira itzuli da uda garaiaren ostean. Hori horrela, ohiko ordutegia hau da: goizez 9:00etatik 14:00etara eta arratsaldez astearte, asteazken eta ostegunetan, 15:00etatik 18:00etara.

Beasaindarren beharrei erantzuteko prest

Herritarren informazio eta arreta zerbitzu gisa, Iguneak honako eginkizunak burutzen ditu:

- Udaleko edozein motatako izapide eta gestioei buruzko informazioa.
- Udal zerbitzu, azpiegitura eta baliabideei buruzko informazioa.
- Eskaera errazak unean bertan egitea, esaterako, erroldatzeak, ziurtagiriak, izen-emateak, etab.
- Agirien sarrera-erregistroa. Udalari edozein motatako agiri

Herriarren arretarako bulegoa Igunea ohiko ordutegira itzuli da

Azken eguneratzea: Asteartea, 20 Iraila 2022 19:05

Argitaratua: Astelehena, 19 Iraila 2022 10:45

ofizialak emateko bide bakarra: Ekimenak, erreklamazioak, diru-laguntza eskaerak, lizentzia-eskaerak, etab.

- Pertsona interesatuek hasitako espedieenteei buruzko informazioa.
- Helbideratzeak, ordainagirien kopiak, etab.
- Hala behar izanez gero, udaleko beste sailekin harremanetan jartzea.

Bestetik, Udalaren [Bulego Birtualaren](#) bidez ere jar daiteke herritarra Igunearekin harremanetan. Administrazio elektronikoko gune honen bidez, tramitazio batzuk elektronikoki eskatu eta burutzeko aukera dago. Era berean arreta ere eskaintzen da 943 02 80 50 zenbakira deituz edo Helbide elektronikoko hau spam roboten kontra babestuta dago. JavaScript aktibatuta eduki behar duzu hau ikusteko. helbidera idatziz.